

IRAUPENA ETA MAIZTASUNA

IRAUPENA

Absolutiboaz (NOR) eta instrumentalaz (ZEREZ) gainera inesiboan (NON) erabiltzen da maiz iraupena adierazteko.

Jonas hiru egunez izan zen balearen erraietan...

Jonas balearen sabelean hiru egun eta hiru gau izan baitzen; ...

Erroman bi urtean egon zen...

Instrumentalean eta absolutiboan iraupena mugagabearen bidez ematen da aditzera. Inesiboaren kasuan, mugagabea erabiltzea zilegi da baina mugatu singularra erabiltzea hobesten da honako kasu honetan: denbora etengabeko unitate bakar gisa hartzen denean, hots, prozesu edo gertaera baten iraupena adierazten denean.

Hiru astean asko hazi da haurra.

Hiru urtean ikasi du euskara

Lau urtean lan egin du Afrikan.

Iraupenik adierazten ez denean, mugagabeak ohiko lekua izango du. Hiru urteko iraupena adierazi beharrean hiru urte desberdinetan gertatu den zerbait adierazi nahi bada, mugagabea beharko da:

Lau urtetan antolatu dute danborrada

MAIZTASUNA

Maiztasuna adierazteko honako eredu hauek guztiak ditugu

Lau urtean behin elkartzen dira senitartekoak.

Lau urterik behin elkartzen dira senitartekoak.

Lau urtetik lau urtera elkartzen dira senitartekoak.

Lau urtez behin elkartzen dira senitartekoak.

Lau urtetarik behin elkartzen dira senitartekoak.

Maiztasuna adierazteko beste egitura bat [izena + *-ero*] esamoldea dago:

[Astero, hilero, ordu laurdenero] etortzen da.

Baina bada hedatuxea den egitura bat, ez euskal literaturan ez eta ahozko erabileran ere inongo tradizioz ez duena eta, beraz, gaitzestekoa dena: [zenbatzailea + izena + *-ero*]

* ~~Bi urtero~~ **egiten dite bilera batzordekoek.**

* ~~Hamabost egunero~~ **etortzen dira bisitan.**

Hamabostero onartzekoa da, **hamabostean behin** nahiz **hamabosterik behin**-en parean.

Eman euskaraz:

1. Olinpiadak **cada cuatro años** _____ izaten dira.

2. Medikiak esan dit pilula hauek **cada seis horas** _____ hartu behar ditudala.

3. 1995, 2000 eta 2002ko ardoa oparitu didate. Beraz, **vino de tres años** _____ ardoa oparitu didate.

4. **Durante 30 segundos** _____ eutsi zion arnasari.

5. En este puente **de cinco días** he estado **tres días** en París.

6. **En tres horas** _____ egin du bidaia.

7. Aukeratu: 2001ean hasi eta 2007an bukatu zuen karrera gure alabak. Beraz, **sei urtean** / **sei urtetan** egin zuen karrera.

8. Medikuntza horrela atera zuen: 1994an hasi zen ikasten. Gero utzi egin zion ikasteari. 1996an bigarren kurtsoa egin zuen, 1998an hirugarrena, 2001ean laugarrena eta 2004an bukatu zuen. Zenbat urtetan ikasi du medikuntza? _____

Eman euskaraz:

1. Olinpiadak **cada cuatro años lau urtean behin / lau urtetik lau urtera / lau urtez behin** izaten dira.
2. Medikiak esan dit pilula hauek **cada seis horas sei urtean behin / sei urtetik sei urtera / sei urtez behin** hartu behar ditudala.
3. 1995, 2000 eta 2002ko ardoa oparitu didate. Beraz, **vino de tres años hiru urtetako** ardoa oparitu didate.
4. **Durante 30 segundos 30 segundoz / 30 segundoan / 30 segundo** eutsi zion arnasari.
5. En este puente **de cinco días** he estado **tres días** en París.
Bost eguneko zubi honetan hiru egun / hiru egunez / hiru egunean Parisen izan naiz.
6. **En tres horas Hiru orduan / hiru orduz** egin du bidaia.
7. Aukeratu: 2001ean hasi eta 2007an bukatu zuen karrera gure alabak. Beraz, **sei urtean / sei urtetan** egin zuen karrera.
8. Medikuntza horrela atera zuen: 1994an hasi zen ikasten. Gero utzi egin zion ikasteari. 1996an bigarren kurtsoa egin zuen, 1998an hirugarrena, 2001ean laugarrena eta 2004an bukatu zuen. Zenbat urtetan ikasi du medikuntza? **Bost urtetan.**